

Espedientearen kodea: 2024ZZ020012

Espedientearen gaia: Berdintasunerako diru laguntza deialdia 2024

Titularra: Oiartzungo Udala

DEKRETUA

Oiartzunen feminismoa sustatzeko edo parekidetasunerako proiektuak gauzatzeko dirulaguntza deialdia argitaratu zen GAOn 2024ko azaroaren 8an, behin oinarriak dirulaguntzen datu-base nazionalan argitaratu ondoren.

Diru laguntza hauetan kontuan izango dira Oiartzungo Udalaren diru laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2018ko azaroaren 30eko GAOn argitaratua; 2022ko irailaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako bere aldaketa, 2022-2024rako Oiartzungo diru laguntzen Plan Estrategikoa, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa, Uztailearen 21eko 887/2006 Errege dekretua, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batagina.

Dirulaguntzak aurkezteko epe barruan, hiru elkartek eginiko eskaerak aurkeztu dira. Eskaeren artean dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten egitasmoei dirulaguntza ukatzea proposatzen da ondorengo arrazoengatik:

- Eskaera proposamenak aztertzean ikusi da 2654-2024 sarrera erregistrodun eskaerak ez dituela dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen, Oiartzungo Ordenantza orokorraren 4. Puntuak zedarrizten baitu onuradun izateko egoitza edo ordezkari iraunkorra Oiartzunen duten edo bere jarduerak iraunkorki bertan egiten dituzten pertsonak edo elkarteek eskuratu ahal izango dituztela diru laguntzak. Hala ere Oiartzundik kanpoko pertsonen edo elkarten jarduerak lagundu ahal izango dira, interes orokorrekoak badira. Bozak elkarteak egoitza Donostian du. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2009 Legeak bere 14.b artikuluan ezarritakoaren arabera elkarteak ez du onuradun izateko betekizunak eta baldintzak betetzen dituela justifikatu organo emailearen aurrean, ezta interes orokorreko izaera ere. Horregatik ez ditu dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen.

Eskaera proposamenak aztertu ondoren, ondorengo taulan jasotako eskabideek deialdiaren baldintzak eta helburuak betetzen dituzte eta aurkeztutako proiektuek gutxieneko puntuak lortu dituela aintzat hartuta, guztira 1674,15 euroko dirulaguntza emateko proposamena egiten dut taulan jasotakoaren arabera

Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehena: dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten egitasmoei dirulaguntza ukatzea.

Bigarrena: ondorengoek dirulaguntza ematea:

- Oiartzungo Feministen Asanbladari 894,15 euroko dirulaguntza eman eta ordaintzea
- Elizaldekoak Guraso Elkarteari 780 euroko dirulaguntza eman eta ordaintzea Bibliopatio proiektuagatik.

Hirugarrena: dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 5000 € euroko izendapena zuen Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0344.480.231.50.09 2024 zenbakidun partidaren kontura ordaintzea. A(2654 – 2024).



Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: **ESKUee82b754-3739-46ca-9d86-f1cab0862d99**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZZ020012-Dekretua/Decreto ()

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JOANA MENDIBOURE - X3747244S
Data / Fecha: 2024/12/20 12:27:48